

**2019KO EKITALDIRAKO EUSKADIKO AURREKONTU
OROKORRAK ONESTEN DITUEN LEGE PROIEKTUAREN
AURKEZPENA EUSKO LEGEBILTZARREKO OSOKOAREN
AURREAN, OGASUN ETA EKONOMIA SAILBURUAREN
ESKUTIK**

Vitoria-Gasteizen, 2018ko abenduaren 11n

Eskerrik asko legebiltzarburu anderea.

Lehendakari jauna, sailburuok, legebiltzarkideok, egunon denoi

Hirugarrenez legegintzaldi honetan natorkizue, Eusko Jaurlaritzaren izenean, datorren urterako Euskadiko Aurrekontu Orokorren Lege-egitasmoa aurkeztera, Ganbera honi onartzea dagokio eta.

Une honetan, zuek denok jakingo duzue Jaurlaritzak ez duela inolako akordiorik itxi Legebiltzarreko ezein talderekin kontuen onesperako. Hori dela eta, barneratuta dauka gaur horien itzulera gerta daitekeela eta Euskadi 2019rako aurrekontu barik geratu daitekeela.

Hori izango litzateke ohikoa egoera honetan; eta ohikoa izango litzateke, baita ere, egoera horren aurrean, saio hau egin

aurretik, Jaurlaritzak kontuak baztertzea, Jaurlaritza bera kaltetuko lukeen kontrako emaitza saihestuz, eta are gehiago, hauteskunde aurreko zarata nabarmentzen ari den une politikoa dela kontuan izanda.

Ba, Jaurlaritza honek, egoera horretaz jabetuta, oraingo honetan, proiektuari eustea eta kalteko emaitza hori bere gain hartzea gurago izan du, horrelakorik gertatzen bada, bere iritziz, hori egiteko bi arrazoi indartsu dituela uste duelako.

Alde batetik, aurkeztutako proiektuan erabateko sinesmena duelako, eta sartu daitezkeen hobekuntzak sartuta, Euskadiri aurrera egiteko gaitasuna duela uste du, probetxuzko gizarte eta ekonomia norabidean, eta herritarrek horren berri jaso behar dute; eta, beste alde batetik, Jaurlaritza gisa, egoera honetara eramán duten arrazoiak eta batzuek eta besteek, Jaurlaritzak eta oposizioak, agertoki honetara heltzeko egin dituzten esfortzuak azaldu behar direla uste duelako.

Jaurlaritza ez da erantzukizunak banatzen ari, ezta gutxiago ere; badaki berari dagokiola, Legebiltzarrean gutxiengoa izanda, kontu horiek aurrera ateratzeko beharrezkoak diren akordioak lortzea, eta bera dela horren arduradun nagusia. Baina hau Lege proiektua da, eta Legebiltzar osoa da legeak onartu behar dituen; hori dela eta, Legebiltzarra da eman beharreko azalpenak emateko lekua, eta ez komunikabideetan, orain arte gertatu izan den bezala.

Argi dago lege hau ez dela edozein lege. Legealditik geratzen den eperako Jaurlaritzarako eta, neurri handian, oposiziorako proiektatzen den legea da.

Lehenengoarentzat ezinbestekoa da lege hori adostea, baina oposizioarentzat ere oso garrantzia da horren aurrean izan beharreko jarrera, legearen aurrean izandako jokaera politikoa eta bestelakoa azaldu beharko duelako, ekonomiaren ikuspuntutik ulertzeko modukoak izango diren arazoiekin, eta ez soilik alderdikerian oinarritutako irakurketa hutsezko arazoiekin.

Irakurketa hori legitimoa da, inolako zalantza barik, baina ez da onargarria desgaste politiko hutsean oinarritzea, Jaurlaritzak planteatu duen proiektua gizartearen, ekonomiaren eta politikaren ikuspegietatik ez dela egokia erakusteko gai izan barik.

Hori horrela izanda, eta gaurko saioa zelan amaitu daitekeen jakinda, eta Legebiltzar honetan oposizioko taldeekin aurrera eramandako negoziazioen eduki zehatza ezagutarazi aurretik, eta amaiera egokia izatearen berme barik bada ere, bidezkoa da Euskadik bizi duen testuinguru ekonomikoa lantzea, 2019an aurrera eraman beharreko politika publikoetan lehentasunak ezartzeko kontuan izan den aurrekontu esparrua, eta legerako

erreserbatuta egonda, oraindik ere maileguak onesten dituen artikuluen testuaren parte izan daitezkeen zenbait gai aipatzea.

Oso laburra izango naiz horretan guztian, zuentzako askorentzat, joan den azaroaren 6an datorren urterako aurrekontuen aurkezpeneko saioaren errepikapena baino ez baita izango; osoko bilkura honetako gainerakoentzat, berriz, aurrekontu esparruaren eta programazioaren azalpen laburra eta zehatza izango da.

Batzordean egin nuen agerketan adierazi nuenez, aurrekontuen proiektua ekonomiaren desazelerazioa aurreikusten duen testuinguru batean egin da, baina, hala ere, nabarmen gainditzen ditu aurreko aurrekontuen aurreikuspenak, kontuan har daitezkeen alderdi guztietan.

Alde batetik, hazkunde ekonomiko handiko aldi bateko emaitzak jaso dituelako, eta, bestetik, kudeaketa eraginkorra eta arduratsua egin delako. Horri esker, Gobernuak osatu zenetik igaro diren ia bi urte hauetan aldaketa nabarmena egin ahal izan da finantza publikoetan.

Aurrekontu berriaren **testuinguru ekonomikoak** konstante bat jasotzen zuen azken bi urteetatik, hazkunderako aurreikuspenen igoera. Hori horrela gertatu da urte honetako hirugarren hiruhilekora arte. Hiruhileko horretan, lehen aldiz,

hazkunde datuaren aurrerapenak aurreikusitakoa baino moteltze zertxobait nabarmenagoa erakusten du.

Garrantzitsuena ez da hamarreko baten aldea $-2,6$ koa, $2,7$ koa izan beharrean-. Garrantzitsuena, azkenean, ekonomiak, hazkunde tasa txikiagorako bidea hartzen duela da eta, oraingoan, bai, 2018rako eta 2019rako aurreikusi ditugun $\%2,8$ ko eta $\%2,3$ ko tasak errealitate izan daitezkeela. Pixka bat $\%2$ tik gora egongo den bide berrirantz goaz.

Dena den, hazkundera txikiagoa den arren, enplegua sortzeko aurreikuspena, lehen ere adierazi genuen bezala, $\%1,4$ koa da 2019rako, hau da, 13.500 lanpostu. 2014an izandako kopuru txikienetik ia 80.000 lanpostu berreskuratu dira, baina oraindik 48.000 baino gehiago falta dira 2008ko kopuru altuenera heltzeko.

Agertoki berriaren aurrean, Jaurlaritzaren iritziz komenigarria da hiru jarduketa ildori eustea euskal ekonomia indartzeko: 1.) produktibitatean eragina izango duten neurriak zabaltzea, berrikuntzaren, inbertsioaren eta giza kapitalaren bitartez; 2.) soldaten hazkundera ikusten ari den bidearekin jarraitzea, horiek, gainera, zerbitzu publikoen kalitatearen funtsezko osagarri baitira; eta 3.) finkapen fiskalean aurrera jarraitzea, etorkizunerako prestatuta egoteko.

Bigarren lekuan, kontu publikoen proiektu hau kokatzen den **ekonomia-aurrekontu esparrua** aipatu gurako nuke.

2017an Estatuarekin finantza harremanak normaltzea lortu ondoren, eta erregularizazioaren eragina kendu eta gero, ekitaldi hori, aurreikusitakoa baino 266 milioi euro gutxiagoko zorpetzearekin itxi zen.

Aurten aurrerapen hura finkatzea eta urtea defizit barik ixtea aurreikusten dugu eta, ondorioz, zorraren igorpen garbia 300 milioi gutxiagokoa izatea; eta hori, aurrekontuan 54,4 milioi euroko inbertsioak gehitu eta gero, gure kontuek 2017an izan zuten irabaziari esker.

Aurrekari horiek dira 2019ko aurrekontua bere finantza kontuan orekatuta aurkezteko aukera ematen dutenak, 2018an defizita izatea posible litzatekeela eta proiektu honetara baliabide gehiago sartu zitezkeela defendatzen dutenen aurrean, edo baita gastua are eta gehiago handitu zitezkeela, defizitari eutsiz.

Adierazi behar dut hori ez dela posible, egonkortasunaren arauak ez dutelako ahalbidetzen. Eta nik esango nuke, gainera, ez dela komenigarria finkapen fiskala atzeratzea, eta zer esanik ez defizit horrekin gastu errekorre*** berria finantzatzea, behin baino gehiagotan iradoki den bezala.

Gastu arauaren aplikazioa malgutu egin beharko litzatekeela uste dugu, aurten finantzaren ikuspegitik jasagarriak diren inbertsioekin egin den bezala, edo erreferentziazko tasan balio altuagoak ezarriz, adibidez, baina ezin daitezke horiek hautsi, bertan ezarritako mugaren bikoitza edo hirukoitza diren gastu igoerak aldarrikatuz.

Muga hori %2,7koa da 2019rako eta, gainera, badugu abantaila bat, hidrokarburoen diru-bilketaren etengabeko hazkundeari esker, 100 milioiko gastu gehigarriak ditugula.

Aurrekontuen zifratara mugatuz, horien **ezaugarri nagusien** ikuspegi azkarra eskaini nahiko nuke.

Foru Aldundien ekarpenak 2018ko aurrekontua baino 631,7 milioi euro gehiagokoak izatea aurreikusten da, 10.155,1 milioi eurokoak. Kopuru hori, Finantzen Euskal Erakundeak adostutako aurrekontuen itxiera, 9.836 milioi euro baino 319 milioi euro gehiagokoa da.

Beraz, gaur egun, 11.784 milioi euro hartzen dituen Aurrekontu Proiektua daukagu, hau da, 2018ko ekitaldirako onetsitakoak baino %2,6 gehiago, %3,6ko benetako igoerarekin, zorraren amortizazioa eta Euskal "Y"-aren eta Hegoaldeko Trenbide Saihesbidearen eragina kontuan izan barik.

Finantza kontu eta SEC irizpide terminoei dagokienez, ia erabateko oreka erakusten da, 5 milioi euroko superabitarekin eta 165,4 milioi euroko zorpetze garbiarekin. Aurreikusitako

amortizazioa 1.098,3 milioi eurokoa da, eta zorpetze osoa 9.134,2 milioi eurokoa.

SEC terminoetan, 2019. ekitaldia, BPGaren gaineko %13,2ko zor mailarekin ixtea aurreikusten da. Horrela bada, defizit eta zorpetze terminoetan, hitzartutako mugen azpitik geratzen gara. Muga horiek, gaur egun, -%0,1ekoak eta %13,8koak dira, hurrenez hurren.

Aurrekontuaren atal nagusia langileen gastuei dagokiena da, termino finkatuetan benetako gastuaren %43a hartzen baitu. Hezkuntzan, segurtasunean edo Osakidetzako karrera profesionalean lortu diren akordio garrantzitsuen, %2,25eko igoeraren eta Itzarriren finkapenaren ondorioz, atal horrek %4,9ko hazkundera erakusten du.

Datu horrek langileen arloan egin behar dugun esfortzu handia eta soldaten berreskuratzearekin dugun konpromisoa erakusten du.

Halaber, inbertsioari ematen zaion bultzada azpimarratu behar dut, kudeaketa propioko inbertsioan %7,4ko hazkundera erakutsiz eta 1.000 milioi euroetara hurbilduz.

Proiektuak berrikuntzarekiko konpromisoarekin leial izaten jarraitzen du. PCTI izenekoaren zuzkidura osoak 461,5 milioi

eurora heltzen dura, eta hazkundera %6,5ekoa da, gobernu programak aurreikusten duen %5etik gora, nabarmen.

Bukatzeko, azpimarratu gurako nukeen azken ezaugarria gizarte arloko politikoekin erlazionatuta dago. Argi dago gizarte arloko gastuak izaera estrukturala duela, baina proiektu honetan hartzen duen %78a horren inguruan hartutako erabaki garrantzitsuetatik sortzen da.

Ezaugarri orokor horien ondoren, eta sail eta sekzio bakoitzaren kredituei dagokienez, hau adierazi behar da:

Osasuna da aurrekontu handiena duen Saila, 3.800,1 M/€, hau da, 2018an baino 122,8 M/€ gehiago.

Hezkuntzak, bere aldetik, 2.845,4 M/€ ditu, hau da, 2018an baino %4,5 gehiago (122,5 M/€ gehiago).

Enplegu eta Gizarte Politika Sailak, 1.028,8 M/€ izango ditu. DSBE-RGIk %2,25eko eguneratzea izango du, soldatek bezala. Ez dugu baztertzen hazkunde hori handiagoa izatea, aurrekontuen inguruan akordioa lortuz gero. Enplegu politiketan egiten den esfortzua ere handiagoa izan daiteke.

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, 865,9 milioi euroekin aurrekontu partidari dagokionez laugarrena denak

34,1 M/€-ko igoera izan du 2018arekin alderatuta. Euskal Y-aren eta Hegoaldeko Trenbide Saihesbidearen kudeaketa kredituek 103,4 M/€ izango dituzte 2019an.

Segurtasunak 658,2 M/€-ko aurrekontua izango du, 17,4 milioiko igoerarekin..

Kultura eta Hizkuntza Politika saila, bere aldetik 260,1 M/€-ra helduko da.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak 223,5 M/€ inguru ditu, eta gehien igoko den Saila da, 2018an baino %8,4 gehiago.

Lan eta Justizia sailak 217,4 M/€ izango ditu, %3,2ko hazkundera erakutsiz.

Lehendakaritza sailak 122,7 M/€ izango ditu 2019an.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu sailak 2,5 M/€-ko igoera erakutsiko du, 121,1 M/€-ko aurrekontura helduz 2019an.

Amaitzeko, **Ogasun eta Ekonomia** sailak 52,6 M/€-ko aurrekontua izango du, eta **Turismo, Merkataritza eta Kontsumo** sailaren aurrekontua 41,2 M/€-raino igoko da.

Sailkapen ekonomikoaren ikuspegitik, I. Ataleko (**Langileen gastuak**) zenbatekoak, administrazioaren zerbitzura lan egiten duten langileen ordainketaren igoera %2,25ekoa izango dela aurreikusten du. Horrez gain, zenbait akordio lortu dira Hezkuntzan, segurtasunean edo Osakidetzako karrera profesionalean eta, gainera, gizarte aurreikuspeneko Itzarri erakundeari egindako ekarpena finkatu egin da, eta langileentzako gastuen zuzkiduren %1,5era igo daiteke ekitaldian zehar, Gobernu Kontseiluaren akordioaren bitartez.

Gastuaren IV. Atalak (**Transferentziak eta Diru-laguntzak**) 3.564,6 milioi euroko bolumena erakusten du. Antzeko kopurua, 3.617,3 milioi euro, bideratzen da II. Atalera (**Funtzionamendu gastuak**). Atal horren barruan sartzen da, beste batzuen artean, Osakidetzaren Kontratu-Programaren zuzkidura.

Finantza Gastuak izeneko III. ataleko gastuei dagokienez, 233,3 milioikoak dira, 2018ko aurrekontuko kopuru berbera.

Ondoren, Aurrekontu Proiektuaren **Artikuluen Testuaren** aipamen laburra egingo dut. 5 Izenburua, 32 Artikulu, 12

Xedapen Gehigarri, Azken 5 Xedapen eta 4 Eranskin osagarri ditu.

I. Izenburuan, berrikuntza bakarra, zuzenbide pribatuko SPRI Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia erakunde publikoaren aurrekontuak lehen aldiz jasotzen direla da.

II. Izenburuko III. Atala ordainketa eta hartzeko pasiboen erregimenari buruzkoa da. Hala ere, ez du jasotzen lan erregimenaren mende ez dauden langileen oinarrizko ordainketen zenbatekoa jasotzen, hori Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean finkatu behar baita, oraindik ez delako onetsi 2019rako dagokion Lege Proiektua.

Hala ere, 19. Artikuluak %2,25eko behin behineko igoera iragankorraren aukera aurreikusten du, 2018ko ekitaldian indarrean zeuden ordainketekin alderatuta.

Horrez gain, gaitasuna ematen zaio Gobernu Kontseiluari, oinarrizko ordainketa horiek ezarri ondoren, funtzionarioen eta Ertzaintzaren jomugako osagarriaren urteko zenbatekoa zehaztu dezan, eta baita gainerako ordainketa osagarrien zenbatekoa zehaztu dezan ere.

Aurreko urtean bezala, Euskadiko Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeen aldetik gizarte aurreikuspen sistemetara egiten diren ekarpenak handitzeko aukera ere

aurreikusten da, ekitaldi horri dagozkion langileen gastuetarako zuzkiduren %0,5eko gehieneko mugarekin.

Diru-sarrerei dagokienez, aurreikusten denez, Euskadiko Ogasun Orokorreko tasak 2018an baino %1,5 handiagoak izatea aurreikusten da.

Azken partean, Lege Proiektuak hamabi Xedapen Gehigarri aurreikusten ditu.

Xedapen horien artean, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren zenbatekoa igotzea jasotzen da, 2018ko ekitaldian aplikatutakoekin alderatuta (Zazpigarren Xedapen Gehigarria), etxebizitzarako prestazio osagarriko eta etxebizitzarako prestazio ekonomikorako 250 euroko zenbateko finkoaren ezarpena (Zortzigarren Xedapen Gehigarria), edo Jaurlearitza ematen zaion baimena Euskadiko Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren administrazio berrantolakuntza prozesuekin erlazionatuta beharrezkoa den guztia arautzeko eta martxan jartzeko (Bederatzigarren Xedapen Gehigarria).

Lege Proiektua, Autonomia Erkidegoko legezko hiru arau aldatzen dituzten azken bost xedapenekin osatzen da: Tasen eta Prezio Publikoen Legearen Testu Baterakoa, zuzenbide pribatuko Euskadiko Kirol Portuak erakunde publikoaren tarifak edo zergakoak ez diren izaera publikoko ondare prestazioak

arautzeko, Goi Karguen Ordainketei buruzko Legea eta Euskadiko Poliziaren Legea.

Halaber, berrikuntza gisa, 2019ko ekitaldian, lege hau onetsi eta gero, sektore publikoaren zerbitzuan lan egiten duten langileen gastuekin erlazionatuta oinarrizko izaerako xedapenak eman daitezkeen aukeraren kontuan izanda, Gobernu Kontseiluak aukera izango duela Euskadiko Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren zerbitzuan lan egiten duten langileen araubidea eta ordainketa baldintzak egokitzeko modua izatea aurreikusten da.

Bukatzeko, Lege Proiektuen artikuluen artean lau eranskin gehitzen dira. Horietako bakoitza puntu hauei buruzkoa da, hurrenez hurren: 2019an sortzen diren konpromisozko maileguak; sozietate publikoen aurrekontuak; mailegu handigarriak; eta hezkuntzako kontzertuetarako modulu ekonomikoen osaketa.

Horiek dira, laburbilduta, 2019ko ekitaldirako Euskadiko Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Lege Proiektuaren magnitude eta ezaugarri nagusiak.

Aurrekontu horiek orientazio estrategikoa dute, epe ertaineko epemugan murgilduz, legealdirako idatzitako eta aurreikusitako plan estrategiko eta sailaren plan nagusien helburuekin lotuta,

programazio jakin bat duten eta hazkunde eutsi eta finkapen fiskal helburu egokiak betetzen dituzten aurrekontuak dira.

Konturatuko zineten bezala, aurreko ezaugarri guztiak eta aurrekontu esparrua positiboan aipatu ditut, 2019rako kontuak egongo balira bezala; egia esan baldintzan jarri beharko nituzke, hipotetikoan, litekeena delako esandako guztia ez gauzatzea.

Aurrerapen hori moteltzea bilaka daiteke, eta baita atzerapen ere, arlo ekonomiko askotan.

Ikus dezagun orain ikuspegi negatiboarekin eta galdetu diezaiozun geure buruari zer ez litzatekeen egingo, zer galduko litzatekeen eta zer atzeratuko litzatekeen datorren urterako kontu faltaren ondorioz. Modu telegrafikoan azalduko dut:

Inbertsio publikoari dagokionez ezin izango litzateke %7,4ko hazkundera gauzatu, hau da, aurten baino 68,4 M/€ gehiago.

Soldaten igoerari dagokionez, Erkidegoko Sektore Publikoko 90.000 pertsona: Osakidetza, Ertzaintza, Lakua, Justizia, Hezkuntza eta sozietate eta erakunde publiko guztiak izango lirateke eragina jasango luketenak.

Osasunari dagokionez, landu ezin izango liratekeen gaiak, zehaztapenetan sartu barik, hauek izango lirateke:

Onkologikoaren adskripzio kontzertua, Osakidetzako karrera profesionala; inbertsio berriak Ordiziako eta Aretxabaletako osasun etxeetan; Bidasoako eta Zumarragako ospitaletako bloke kirurgikoak; Arabako giza ugalkortasun unitatea eta, beste jarduketa batzuen artean, Lehen Arretan erizaintza indartzea.

Enplegu eta Gizarte Politikei dagokienez, ezinezkoa izango litzateke tokiko garapen agentziekin egin beharreko 6 milioiko kontzertazioa aurrera eraman. Eta ezin izango litzaioke toki erakundeetan gazteen kontratazioari ekin, beste 6 milioiko atala. Enpleguko zentro berezietarako 8 milioiko hazkundeak ere ez luke aurrekontu euskarririk izango. Ezin izango litzateke gauzatu DSBE-RGIin aurreikusitako %2,25eko igoera.

Ekonomiaren garapen eta azpiegiturari dagokionez, hauek estaldura barik geratuko lirateke: Egoera txarrean dauden guneen Talka Plana; Indartu programaren hedapena; Ezkerraldea Parkea; Landa Garapeneko Programa zuzkidurarik gabe geratuko litzateke, eta gauza bera gertatuko litzateke Lehen Sektoreko Lan Prebentziorako Planarekin edo Tokiko Produktuen Esportaziorako Lehiatu Programarekin. Inbertsio proiektu garrantzitsuek ere eragina jasango lukete: Bermeoko arrantza lonjak; Orioko kai aurreratua; Durangoko urbanizazioak; La Esperanza pilotalekuak; Tranbia Salburuara luzatzeak; Tranbia Atxuri-Bolueta tartean luzatzeak;

Amorebietako geralekuak; Debako geltokiak edo trenbideen zaharberritze lanek.

Etxebizitzari dagokionez, moteldu egingo litzateke etxebizitza publikoaren eraikuntza, inbertsio zuzenean %50etik gorako igoera baitago aurreikusita.

Hezkuntzari dagokionez, ezin izango lirateke langileen inguruan adostutako 30 milioi euro inguruko akordioak gauzatu. Eta gauza bera gertatuko litzateke Haurreskolak erakundera zuzendutako 4,5 milioekin. Eta gauza bera Lanbide Heziketako ekipamendu eta funtzionamendu hazkundearekin. Ezin izango litzateke UPV/EHUren zuzkidura handitu.

Ezinezkoa izango litzateke, baita ere, **Kultura** arloko zenbait jarduerari ekitea, euskara ikasteko laguntzak %37,5 handitzea, edo 125.000 euro gehiago bideratzea euren jardueraren nazioartekotzearen eta ofizialtasunaren aldeko apustua egiten duten kirol federazioetara.

Turismoari eta merkataritzari dagokienez, Oarsoaldeko eta Ezkerraldeko merkatarien elkarteekin guneetako proiektu estrategiko berriak martxan jartzeko prozesuak eragina izango luke.

Lan eta Justizia Sailaren barruan, azkenik, ezin izango litzateke martxan jarri Soldata Tartearen murrizteko Talka Plana,

ez lirateke hobetuko ofizioko txanden baldintzak, emakumeen kontrako indarkeria kasuetan bereziki, edo ezin izango lirateke gauzatu genero indarkeriaren biktimei eskaintzen zaien arretan aurrera egiteko neurriak.

Eta hori guztia, inplikazio negatibo gutxi batzuk bakarrik aipatzeagatik.

Badakit, edo imajinatzen dut ez betetze zerrenda hori ikusita zer egongo zareten pentsatzen.

Badakit pentsa dezakezuela legerik ez badago ere litekeena dela horietako askori ekitea, Jaurlearitzak hala gura badu. Eta hori esaten dut duela egun batzuk oposizioko talde bateko liderren batek, oso modu friboloan, irrati baten, funtzionarioen soldataren igoera, adibidez, Jaurlearitzaren Dekretu bitartez egin zitekeela esan zuelako.

Ba, argitzeko, hori ez da horrela, eta aipatutako jarduketa gehienek ez lukete gauzatu ahal izateko beharrezko mailegurik izango. Eta zer esanik ez, ezinezkoa izango litzateke DSBERGIA Aurrekontuen Legean aurreikusten diren zifratan eta ehunekoetan igotzea. Eta gauza bera gertatuko litzateke diruz lagundu daitezkeen programa gehienekin.

Amaitzera noa, eta bukatzeko, labur bada ere, kontatuko dut Jaurlearitza zelan heldu den osoko honetara kontuak aurrera

ateratzeko inolako bermerik gabe, zein izan den egindako ibilbidea eta zeintzuk izan diren oposizioko taldeekin izandako elkarrizketetan jasotako inpresioak eta zergatik, askok, denbora gutxi barru, porrot baten kronika gisa aipatuko dutena, Jaurlaritzak honek, oraindik, lor daitekeen zerbait gisa bizi duen.

Zuek guztiok ondo dakizuen bezala, lehen aldiz, eta Eusko Jaurlaritzak proiektu onetsi baino nahiko denbora lehenago, Legebiltzarreko taldeen proposamenak entzuteko aukera eman dugu, lehentasunak ezartzeko xedez, kontuan izanda, batez ere, inbertsioak gauzatzeko nahiko marjina garrantzitsua zegoela.

Aurrekontu esparruaren berri modu zorrotzean, eta xehetasun guztiak azaldu eman diegu.

Azaroaren 6an, Jaurlaritzak onetsitako proiektua Batzordearen aurrean aurkezteko egunean, esan genuen taldeetako baten erantzuna ez zela heldu aurrekontuen onespeneren aurretik kontuan izateko beharrezkoa den epean.

Beste bat, Legebiltzarreko beste talde bati zegokiona, hain neurritz kanpokoak zenez, ezinezkoa zen kontuan izatea, formulatu zen modu hartan.

Hirugarren taldearen aldetik ez genuen ezer jaso, oraindik aurrekontuen eztabaidan sartu barik zegoelako, beste mota

bateko arrazoi politikoak aipatuz. Gaur, hala ere, esan dezakegu, akordioa lortzeko asmoz, Jaurlaritza oposizioko hiru taldeekin elkartu dela behin eta berriro, azaroaren erdialdetik hona.

Zoritxarrez, ez da hitz egiteko askorik egon bi talderekin, distantzia politikoa, ideologikoa eta ekonomiaren ingurukoa egiaztatu ondoren, elkarrizketak bertan behera uztea erabaki dutelako.

Alderdi Popularra Akordioaren aurreko prebentzioan argien aritu dena hemerrotekak argi eta garbi erakusten duen zerbait da. Beti aritu da argi eta garbi proiektura ez hurbiltzeko asmoan, eta horretarako baldintza gisa jarri du EAJ/PNVk Autogobernu Batzordean duen jokabidetik urrundu beharra.

Inolako zalantzarik gabe, jakinik proposamen horrek ezezkoa jasoko zuela eta, ziurrenez, euskal kontuetatik eta Jaurlaritza honetatik urruntzeko benetako beste arrazoi batzuk izanda, ez dute azaldu zergatik esan dioten ezetz bere taldeak Jaurlaritza honekin konpartitzen duen ikuspegia bermatzen duten kontuei. Konpartitzen dituzten puntuen artean aurrekontu egonkortasuneko funtsezko arauak, diru-sarreraren arloko diziplina dira, moduren batean bilakaera lotikoa erakusten dutenak, baina iaz onetsi zituenak baino askoz ere oinarri ekonomiko sendoagokoak.

Baina jarrera politiko horrek ez du inor nahastu, eta iritzi publikoaren aurrean argi eta garbi geratu da, aurrekontuarekin inolako zerikusirik ez duen arren.

Ezinezkoa izan da Elkarrekin-Podemos taldearekin elkarrizketak egitea. Oraindik ere uste dugu estratosfera ez dela negoziatzeko leku egokia.

Bere negoziazio plataformak jasotzen zituen hamabost puntuetatik sei edo zazpi baino ezin ziren negoziatu, eta horrela jakinarazi zitzaien. Euskadiko koalizio honek beste lurralde batzuetako kideek jokatzeko dituzten errealismo politikoaren printzipioak nagusitu beharko lirateke negoziazio planoak izango lituzkeen ekonomia-finantza eta aurrekontu aldeko hurbilketa lortzeko, eta ez lerro paraleloak, gaur egun Eusko Jaurlaritzaren eta Elkarrekin-Podemos taldearen artean gertatzen den bezala.

Jaurlaritza honek beti jakin izan du aurrekontuen onespina ekintza gehien bat politikoa dela, eta inozoak izango ginateke nagusituko den bakarra ikuspegi ekonomikoa izango dela pentsatuko bagenu.

Baina, hala ere, ezin da zalantzan jarri aurrekontuen negoziazio batean lekua duten bakarrak finantza arloko erabaki errealistak, arduratsuak eta gure eskumenei egokitutakoak direla.

Elementu horiek ikuspegi politikoarekin uztartzea izan da gure lana, 2019rako kontuen aurkezpenean aurreratu genuen bezala. Bideragarritasun politikoa sortzea.

Esan genuen akordioa bilatuko genuela negoziatzeko benetako borondatea zuenarekin eta gizarte arloko eta sektore politiketako hobekuntzak adostu nahi zuenarekin, herritarren ongizatea edo kohesio orokorrerako beharrezkoa den gizarte arloko berdintasuna arriskuan jarriko luketen abentura ekonomiko jasanezinetan sartu barik.

Eta horrela egin dugu EH Bildurekin, zoritxarrez, gaur egun, oraindik, inolako fruiturik eman ez duen negoziazioan sartu gura izan duen talde bakarrarekin.

Horregatik guztiarengatik, kasu harrigarriena da, itxuraz bi aldeek negoziatzeko borondatea erakutsi duten arren, negoziazioak trabak aurkitu dituelako behin eta berriro, Jaurlaritzak egin dituen eskaintzen aurrean erantzun zehatzak ez emateagatik, eskaintzak Jaurlaritzaren aldetik hobetuz joan diren arren, jarrerak malgutuz.

Gure iritziz behar adinako eskaintzak ziren, oso egokiak. Zerbait arrazoizkoa eta duina bi aldeentzat, EH Bildurentzat funtsezkoak ziren gaietan hurbilketa egotea aurreikusten zutenak.

Taldearen hasierako proposamena, oso agertoki ekonomiko okerrean oinarritzen zen eta, gainera, esan behar da, gaur egun ere horretan jarraitzen dute, eta eztabaidatzeko bi gai baino ez zituen planteatzen: pentsioak eta enplegua.

Beste modu batera esanda, aurrekontutik ezer ez ukitzeko prest zeuden, bi politika zehatz hobetzera mugatzen ziren.

Koalizioaren jarrerak erakusten zuen euren begirada pentsiodunen kolektiboetan eta haien egoera ekonomikoan baino ez zutela zentratu nahi, hori Euskadin egin zitekeela defendatuz, gizarte laguntza arloko eskumenen bitartez edo, beste modu batera esanda, diru-sarrerak bermatzeko errentaren bidez.

Berrito esaten dudanez, harrigarria den jarrera hori guztiz sektarioa da DSBE-RGIaren jasotzaile orokorreari dagokienez, eta EH Bilduk badaki jasanezina dela eskatzen diren zifratan. Ez da esaten zelan egin behar den koalizioaren zuzenketa-eskeak zehazten diren arte, eta bertan, Euskadiko erantzukizun publikoaren marjinak gainditzen dituzten DSBE-RGIrako gastu parametroak eta zenbateko eta sarbide baldintzak ezartzen dira.

Hala ere, atzo arte negoziatzen jarraitu genuen. Atzo, Jaurlaritzak, gardentasun eta duintasun instituzional jardunbide

argian, jende aurrean ezagutarazi zuen bere ia behin betiko eskaintza, negoziazioaren ukitutzat interpretatzen dugunaren faltan.

Jaurlaritzak, negoziazioetan asteak eman ondoren, ezin dio aurre egin osotasunari buruzko eztabaida irekiari, eta horrela jakinarazi zion koalizioari.

Funtsean, Jaurlaritzak hau eskaini dio EH Bilduri:

- DSBE-RGIaren alorrean, bi planoko akordioa, plano ia erabat ekonomiko bat eta beste plano kudeatzaileago bat. Arlo ekonomikoari dagokionez, 2019an DSBE-RGIaren zenbatekoa 3,5 puntu igotzea eskaini zen, 2018an indarrean zegoenarekin alderatuta, eta beste horrenbeste 2020ko ekitaldirako. Ehuneko hori %7koa izango litzateke 2019an DSBE-RGIaren jasotzaile pentsiodunen kasuan eta %5ekoa 2010an kolektibo horrentzat. Kudeaketaren planoan bi konpromiso garrantzitsu jarri ziren mahai gainean:

1. Lanbiden Unitate espezializatua sortzea bermatzea, pertsona horiei zuzendutako laguntzak kudeatzeko, arretarako eredu eksklusiboarekin eta protokolizatuarekin.
2. Sei hilabeteko epean, pentsioak jasotzen dituzten DSBE-RGIaren unitate onuradunen barruan, egoera pertsonalak eta horiei lotutako behar egoerak aztertuko dituen txostena egitea, zaugarritasun ekonomikoan dauden emakumeen kasua, batez ere, eskubideei dagozkienean

banaka landu daitezkeen egoera horiei aurre egin ahal izateko. Horien ezarpena, diru sarrerak bermatzeko arautegia edo aurrekontuak aldatzeko aurrera eramango diren eztabaidetan landuko litzateke.

3. Aipatutako neurriak ezagutarazteko Informazio kanpainak osatuko lituzke arlo horretako konpromisoak.

Enpleguari dagokionez, ekitaldi honetan 45 milioi eurora hel daitezkeen igoera eskaini da, ordainketako eta konpromisoko maileguen artean, eta gazteen artean kalitatezko enplegua sortzeko, belaunaldien arteko errelebua bultzatzeko eta langabezia denbora asko daramaten langabetuei laguntzeko talka planei aurre egiteko aukera emateko.

Hori guztia Lanbiden dauden programak berreginez edo berriztatuz eta berregituratuz, edo baita berriak sortuz ere, EH Bilduren partaidetzarekin, eta baita gaur egun enplegua ematen dutenekin bat egingo duten beste protagonista batzuekin ere, ekintzailtza kolektiboaren edo autoenpleguaren bitartez.

Horrez gain, akordioa beste alor batzuetara zabaltzea ere eskaini zen, horiek ere oso garrantzitsuak, 2012tik zenbait politikatan, familian edo kontziliazioan izandako murrizketak berreskuratzean, adibidez, edo inbertsio jasangarri jakin batzuk modu adostuan aurrera eramateko konpromisoa, erabiltzeko baliabideek eta soberakinek horretarako aukera ematen bazuten. Eta horrela izango litzatekeela dirudi.

Egoera horren aurrean, EH Bilduren erantzuna, gure iritziz hain eskuzabala eta duina izan den Jaurlaritzaren esfortzuaren aurrean, hasierako abiapuntura itzultzea izan da, zuzenketa-eskeetan zehaztutako beraien jatorrizko proposamenera itzultzea, ezer negoziatu ez balitz bezala, Jaurlaritzak egindako eskaintza publikoak, euren iritziz, inolako aurrerapausorik erakutsiko ez balu bezala.

Ez dut pentsatu gura jokabide horrek irakurketa sinplista duenik: inoiz ez dutela aurrekontuak bultzatzeko asmorik izan eta Jaurlaritza engainatzen aritu izan direla eta, are larriagoa, Euskadiko pentsiodunak engainatzen aritu izan direla

Geratzen zaigun sentrazioa Jaurlaritzaren pazientziarekin jolastu egin dela da, Jaurlaritza une oro komunikaziorako leialtasunez aritu delako, forma egokiekin eta argi eta garbi edukietan. Eta egia bada Jaurlaritza dela aurrekontua onestea behar duena, gobernuak egindako eskaintzari ezezkua emateak, gutxiegi dela eta euren asmoetatik urrun dagoela esanda, ez die oso egoera onean uzten eta, nolabait, eskainitakoaren aurrean lortu den aurrerapauso hutsaren arduradun bilakatzen ditu.

EH Bilduk badaki Eusko Jaurlaritzak ezin duela eta ez duela pentsio politikarik egin behar. Badaki behar gehien duten pentsiodunen baldintza ekonomikoak hobetzeko duen aukera

bakarra gizarteratze eta gizarte laguntza eta diru-sarrerak bermatzeko tresnak direla, eta badaki Jaurlaritza horren alde dagoela, baita koalizioaren partaidetza barik ere. Izan ere, Legebiltzarrerara bidalitako aurrekontu proiektuak berak nabarmen handitzen baitzuen DSBE-RGIaren zenbatekoa.

Baina, politika horren bitartez, 50.000 pentsiodun unitate gehiago gehitu nahi izatea, pentsio politika zuzenak eginez, ekonomiaren ikuspegitik guztiz ezinezkoa da, ez litzateke zuzena izango ekonomiaren eta aurrekontuen aldetik arreta berbera behar duten beste kolektibo askorentzat eta, gainera, Euskadiko herritarren dirua, beste batzuek ordaindu beharreko jarduketak ordaintzera bideratzea da. Gainera, horren bitartez, euskal DSBE-RGI politika guztia arriskuan jar daiteke.

Eta ausartzen naiz esatera, agintean eta gobernuan egonda, EH Bildu ez litzatekeela gai izango aurrekontuak onartzeko orain eskatzen ari dena gauzatzeko.

Eta hori esaten dut Euskadin, oposiziotik, Nafarroan gobernutik indarrean jarri ezin duena eskatzen duelako. Zergatik esaten die ezetz beharrak eta zaurgarritasun ekonomikoa dituzten pentsiodunentzako antzeko prestazioak dituen beste edozein eredu hobetzen duten eskaintzei?

Jaurlaritzak bere eskaintza mantentzen du, eta eskaintza hori egin du EH Bilduk negoziatu nahi izan duelako eta EH Bilduk mahai gainean ipini dituelako bai bi gai jakin eta talde jakin bat, hau da, diru-sarreraren bermatzeko errenta jasotzen dituzten pentsiodunak.

Eta Jaurlaritzak, akordioa lortzeko, ezetz esan behar izan dio beste politika batzuei eta, horrez gain, kudeaketaraino heltzen den eremu bat eskaini dio EH Bilduri, aurrekontuen ingurutik haratago. Hori ere EH Bilduk baloratu beharko lukeela uste dut.

Hala ere, ekonomiaren ikuspegitik bideraezinak, desegokiak eta juridikoki arriskutsuak eta, diru-sarrerak bermatzeko politika orokorretarako baztertzaileak direnez, bidegabeak direla badakien hobekuntzarako proposamenak mahai gainean jartzeko borondatearekin, igoera nabarmenak hutsean geratzea lor dezake. Urte anitzeko esparruan izango duten igoera eta kudeaketa arloko hobekuntzak aurrekontuen ahanzturan geratzea lor dezake.

Jaurlaritza benetako negoziazio leialean ari da, baina orain arte lortutako emaitza ikusita, argi eta garbi dago EH Bilduk negoziatorako duen borondatea desagertzen ari dela, Jaurlaritzak zentzuzko eskaintza bideragarriak egin ahala. Eta oraindik ere eskaintza horiei eusten die.

Eta ez nuke nahi jarrera hori betidaniko oposizio jokabideak, edo Euskadiren gobernagarritasunean inplikatzeko beldur eszenikoak eragindakoa izatea. Inork ez luke ulertuko eta nik neuk, etsigarria izango litzatekeela uste dut, honaino heldu eta gero, horrenbeste atzera egin beharra.

Eta, batez ere, ez nuke pentsatu nahi DSBE-RGIa kobratzen duten euskal pentsiodunen kolektiboa erabili gura izan denik, koalizioaren jarduketaren bahitu gisa, ezinezkoa zela zekitena sinestaraziz.

Behin eta berriro esan dudan bezala, Jaurlaritzak bere eskaintzari eusten dio eta, bihotzez, uste nuen EH Bilduk onartzetik gertu zegoela.

Baina, hori bai, gaur proiektua itzultzen ez bada, osteguneko, abenduaren 13ko 00:00ak arte baino ezin izango zaio eskaintzari eutsi, Batzordearen eztabaida hasi baino ordu batzuk lehenagora arte, izapide horretara aurrekontuen gaineko akordioa itxi barik heltzeak, Jaurlaritzaren proiektua oposizioaren proiektu bilakatzeko arriskua eragingo lukeelako, koherentzia eta gauzatzeko benetako bideragarritasuna galduz. Jaurlaritzak aurrekontuaren gaineko kontrola galduko luke, eta hori ezin dugula onartu ulertuko duzue.

Borondatea baldin badago, badugu negoziatzeko eta akordioa lortzeko tarte, baina eskainitakoaren gaineko marjina ekonomikoa eta edukiei dagokiena oso txikia da.

Edozelan ere, Jaurlaritza honek EH Bildurekin adostutako aurrekontua gura du, adierazitako baldintzetan Legebiltzarreko beste edozein talderekin gura izango lukeen bezala, baina esan behar dut, baita ere, ez diola beldurrik Legebiltzarreko kontrako iritziari.

Izan ere, gaur bertan itzul daitekeela dakigun proiektua aurkezten ari naiz gaur hemen, eta Jaurlaritzak ez dio beldurrik kontrako iritzi posible horri, erantzukizunez eta engainurik gabe aritu delako. Eta Jaurlaritzak ezin du edozein prezio ordaindu, koherentzia instituzionalarengatik eta bere buruari zor dion errespetuarengatik.

Hala ere, hori horrela gertatuko balitz, bere eskuetan dagoen guztia egingo luke EH Bildurekin izandako negoziazioan eskaini dituen DSBE-RGI eta enplegu arloko hobekuntzak aurrera eramateko, eta modu arduratsuan egingo luke, juridikoki seguruenak diren tresnen bitartez, eta aurrekontuei esaten zaien EZ horren ondorioz euren egoera hobetuko ez duten kolektibo guztiak kontuan izan da, bat bera ahaztu barik: sektore publikoaren zerbitzura lan egiten duten langileak, gizarte bazterketa arriskuan daudenak, gazteak, langabetuak,

Euskadiko sektore publikoarekin kontratuak sinatzen dituzten enpresak, etab.

Eurengatik gaude hemen, eta eurengana egongo dira zuzenduta aurrekontuak 2019. urtean.

Eskerrik asko.